

Musika eskolan

Amak larderiatsua izan behar du, haurrak aldiz, tuntun aire batekin. Zerbaiten erratekotan delarik, amak hitza ebasten dio.

- Irakaslea : Agur, anderea.
- Ama : Bai zuri ere. Ene semearen izena eman nahi nuke kantu ikasgaien segitzeko.
- Irakaslea : Ohartu zara dohain berezi bat baduela edo (haurrari) kantua biziki maite duzu ?
- Ama : Bai, hori da. Kantua maite du eta egia erran ene betiko ametsa izan da kantari bilaka dadin baina...
- Irakaslea : Zer adin duzu ?
- Ama : 12 urte egin berriak ditu.
- Irakaslea : Pentsatzen dut kolegioan zarela eta asteazken arratsaldeak libro dituzula. Ea, zer tenoretan jin zintezke ?
- Ama : Asteazken arratsaldeetan bi orenetatik lauak artio hartua da. Matematikako irakasle bat etxera jinarazten dugu lanean ararazteko. Pentsatzen dugu aietasun gehiago ukanen duela bere geroaren hautatzeko matematiketan oinarri sendoak baldin baditu.
- Irakaslea : Beraz ondolik ; eman dezagun bostetan.
- Ama : Zoritxarrez igerilekura doa tenore horretan. Indar intelektualekin batean gorputza ere garatu behar da. Izpiritu sano bat gorputz sano batean. Hori da orekaren gakoa !
- Irakaslea : Arrunt ados naiz zurekin. Gainera on dute lagunekin zalapartaka aritzea !
- Ama : Serafinok klase partikularrak hartzen ditu denbora guttiagoren galtzeko. Lau igeri motak badakizki.
- Irakaslea : Bon, astelehenetan arteka bat banuke seietatik zazpiak artio. Bazaizue ?
- Ama : Alta hori ere ezinezkoa du kolegiotik landa bi oren musika baitu : oren bat solfeoa eta oren bat pianoa.
- Irakaslea : Astearteetan tenore guziak hartuak ditut beraz ez dizuet fisik proposatzen ahal.
- Ama : Berdin munta du preseski egun horretan karate egiten baitu. Gaurko jendartean hobe da bere buruaren babesten ikasirik entzuten diren basakeriekin !
- Irakaslea : Zer gelditzen zaigu beraz ? Ostegun arratsaldeetan...
- Ama : Ez du balio ! Arte plastikoetan abiatua da eta nahi dut absolutuki segi dezan. Orain badakigu burumuinaren bi eskualdeak estimulatu behar direla. Eskolak eskuin aldean egiten du baina bestea gure kontu ! Bestenaz ez ditu bere ahal guziak baliatuko gura Serafinok.
- Irakaslea : Zaila zaigu arteka baten atzematea. Fiteago aitzina gintezke erraten bazenit noiz libro zaretan.
- Ama : Arrazoi duzu. Guri dagokiguna... igande goiza da.
- Irakaslea : Igande goiza ? Baina ez naiz igande goizetan lanean ari !
- Ama : Zer pena ! Ez duzu hala ere ikusi nahi zertan den ? Segur naiz dohaina atzemanen diozula.
- Irakaslea : Hori bai egin dezakegu.

Ama ateratzen da eta irakasleak soinu batzuk errepikarazten dizkio haurrari. Honek arras gaizki errepikatzen ditu. Ama berriz sartzen da.

Ama : Beraz ? Zure ustez zer da ? Tenor ? Soprano ?

Irakaslea (ez gustuan) : Ez da oraino erraten ahal baina zure semeak behar luke lehenik musika eta kantua barnetik sentitu. Hortako diskoak eros iezaizkiozu...

Ama : Erosten dizkiot, bai: Pavarotti, La Callas...

Irakaslea : Ez, ez horrelakoak, haren adinean maite dituztenak: Haurrock...

Ama : Zer derasazu ? A ez ! Hori ez da musika eta zernahi gisaz ez badiozu ene semeari kantua erakutsi nahi, nihaurek diot erakutsiko. Agur anderea. (Abiatzen da « andere handi »). Zatoz, Serafino. (Atean delarik, berriz itzultzen da irakasleari buruz eta mespretxu aire batekin) Haurrock, pfut !

Jokalariak : Musika irakaslea, ama, haurra
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti